

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

**HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK**

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Berdintasunerako Institutuak gizarte-erakundeekin indarkeria errotik kentzeko eta berdintasuna sustatzeko konpromisoa berritu du

Munduko Medikuak, Itxaropengune eta IPES Elkartearekin lankidetzarako hitzarmenak berritu ditu

Astelehena, 2019.eko martxoak 18

Nafarroako Gobernuak — Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren bitartez (NABI)— emakumeen eta gizonen artean benetako berdintasuna lortzearen eta emakumeek emakume izateagatik soilik jasaten duten indarkeria oro errotik kentzearen alde apustu egiten jarraitzen du. Ildo horretatik, lankidetzarako hiru hitzarmen berritu ditu hainbat erakunderekin, eta guztira 95.000 euro bideratu ditu



Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren zuzendari-gerenteak IPESen ordezkariekin hitzarmen berria sinatu du

Emakumeen Genitalen Mutilazioa prebenitzeko, salerosketaren biktima diren emakumeen harrera-baliabide espezifikoak kudeatzeko eta Emakumeen Liburutegia – Dokumentazio Zentroa mantentzeko.

Emakumeen Genitalen Mutilazioa prebenitzea

Proposamena, 15.000 euroko hitzarmen honetan gauzatuko dena, Munduko Medikuak eta Nafarroako Berdintasunerako Institutuak koordinatuko dute. Generoaren eta giza eskubideen ikuspegitik Emakumeen Genitalen Mutilazioa prebenitzeko eta gaiaren inguruan sentsibilizatzeko lan bat da, emakumeak eta neskak ardaztat hartzen dituen. Kultur bitartekaritzaren bidez ekitea proposatzen da, emakumeengana, neskengana eta familiengana hurbiltzeko modurik eraginkorra delako, beren erkidegoetan liderrak eta bitartekariak diren emakume afrikarren zeregina sustatzearen eta biztanleak sentsibilizatzeko bidez.

Ekimenak, gainera, praktika hori aurrera eramaten den herrialdeetako gizon-emakumeekin prestakuntza-tailerrak, eremu ezberdinetako profesionalen prestakuntza eta biztanleei zuzendutako sentsibilizazio-jarduerak biltzen ditu.

Salerosketaren biktime diren emakumeei harrera

Nafarroako Berdintasunerako Institutuak Itxaropen Gune elkarteari zuzendutako 30.000 euroko diru-laguntza berritu du, sexu-esplotaziorako salerosketaren biktime diren emakumeentzat eta haien seme-alabentzat aldi baterako ostatu-baliabidea kudeatzeko Nafarroan.

Zerbitzu honen bidez biktimek espazio seguru batean suspertzeko aukera izango dute, eta aspektu psikologiko, soziolaboral eta juridikoak barne hartzen dituen arreta osoa jasoko dute, Emakumeen Kontrako Indarkeriari Aurre Egiteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legea betez.

Emakumeen dokumentazio-zentroa

Nafarroako Berdintasunerako Institutuak IPES Elkartearekin hitzarmena berritu du, Emakumeen Liburutegiaren- Dokumentazio Zentroaren mantentze, garapen eta funtzionamendurako eta emakumeak bizitzako eremu ezberdinetan ikusaraztea xede duten jarduerak aurrera eramateko. Xede horrekin, Institutuak 50.000 euroko ekarpena egin du. Genero-berdintasuna, emakumeen egoera eta eskubideak, generoari buruzko teoriak eta feminismoak zabaltzeko helburuarekin, aurten ere Emakume Sortzaileak programa gauzatuko da, izenburu honen pean: Emakumeak eta Umorea artearen, generoaren eta feminismoen barruan.

Galería de fotos



Renovación de la colaboración con Médicos del Mundo.



Itxaropen Gunearen ordezkariekin hitzarmen berria sinatzea.